



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 27a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-23/LEY-00012. Foru Legea, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamenturako kreditu berezi bat emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—11-23/PRO-00010. Foru Lege proposamena, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-23/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasunaren nahiz publikitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-23/MOC-00046. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Zibersegurtasun Agentzia sortzeari buruzko foru-lege proiektu bat prestatzen has dadin. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-23/MOC-00062. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexitei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-23/MOC-00075. Erabakia, zeinaren bidez Pedro Sánchezen inbestiduraren prozesutik aterako den Espainiako Gobernua premiatzen baita bultzatu egin ditzan erreformen politika bat, bizikidetzeta eta konkordiareneko sustapena, eskubideetan aurrera egitea eta herritar guztien aurrerabidea. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-23/MOC-00076. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturarteko bizikidetzarako teknikarien sarea (TECIR) indartu dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

—11-23/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten baitu espainiar guztiak legearen aurrean berdinak izatearekin eta konstituzionalismoaren eta gainerako ordena-

menu juridiko indardunaren defentsarekin, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren eta ordezkatzeko dituen goi balioen berme diren heinean. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-23/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehentasunez eta al bait azkarren izapidetu dezan gure herrialdean modu ilegalean sartzen diren etorkin guztien berehalako kanporaketa. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).

—11-23/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion enkante eolikoetarako egungo araudia aldatzea, bertan prezioaren irizpidez gain irizpide gehigarriak sartze aldera. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/ELC-00010. Nafarroako Parlamentuko ordezkariak izendatzea Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoan (10. or.).

J SAILA:

Ponentziak:

—11-23/PON-00003. Foruaren hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeke ponentziaren barne-funtzionamendu arauak. Barne-funtzionamendu arauak (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-23/LEY-00012. Foru Legea, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamenturako kreditu berezi bat emateari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko azaroaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Foru Legea, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamenturako kreditu berezi bat emateari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamenturako kreditu berezi bat emateari buruzko Foru Legea

ATARIKOA

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak adierazi du 1.000 euroko ekarpena egin beharra dagoela CENER Fundazioaren fundazio-zuzkiduran, eta ez dagoela harentzako krediturik.

CENER Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da. Haren helburu soziala da ikerketa zientifikoko jarduerak egitea, teknologia garatzea eta berrikuntza interesgarriak sustatzea energia berriztagarrien sektorean.

Gaur egun, honako hauek osatzen dute CENER Fundazioaren patronatua: Nafarroako Gobernua (% 49), Estatuko Administrazio Orokorra eta CIEMAT (% 49) eta AI+G Automozioa eta Mekatronika Fundazioa (% 2). Patronatuaren asmoa baita CENER Fundazioak fundatzaileen jatorrizko asmoari eustea bere izaera juridikoan eta, aldi berean, fundazioaren ekonomia- eta

kudeaketa-errealitatera egokitzea, patronatuak, 2023ko apirilaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Gobernuarengandik 1.000 euroko ekarpen gehigarria onartzea, fundazio-zuzkidurarako. Horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gehiengo partaidetza izanen du CENER Fundazioan, Estatuko Administrazio Orokorren eta CIEMATen partaidetzaren aldean.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak ez duenez partida egokirik CENER Fundazioari 1.000 euroko fundazio-ekarpena egiteko, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren 2023ko gastuen aurrekontuan partida berri bat sortzea proposatzen da, aipatu fundazio-ekarpena egiteko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat emateko. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal dela, Parlamentuak zuzenketa onduz edo foru lege honen xedapenak direla-eta berriaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2023rako aurrekontuan 1.000 euroko aparteko kreditua ematen da, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

| PARTIDA | ZENBATEKOA (EUROAK) |
|---|------------------------|
| G20001 G2100 7309 467302 "CENER Fundaziorako fundazio-ekarpena" | 1.000 |

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa

1.000 euroko aparteko kreditu hori honako partida honetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura finantzatuko da:

| PARTIDA | ZENBATEKOA (EUROAK) |
|---|------------------------|
| G20001 G2100 2276 467300 "Azterlanak eta lan teknikoak" | 1.000 |

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

11-23/PRO-00010. Foru Lege proposamena, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko azaroaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena ezetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete dituzan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua bezela, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 16an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete dituzan. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere 9 hilabete epean oso-osorik bete dituzan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legeak gardentasunaren nahiz publizitatearen arloetan ezartzen dituen betebeharrak guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere 6 hilabete epean bete dezan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta legearen aplikazioari buruzko ebaluazio globala egin eta Nafarroako Parlamentura igor dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Legearen 67.2 artikuluan ezarritakoa bete dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00046. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Zibersegurtasun Agentzia sortzeari buruzko foru-lege proiektu bat prestatzen has dadin

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua bezela, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 16an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Zibersegurtasun Agentzia sortzeari buruzko foru-lege proiektu bat prestatzen has dadin. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du –zehazki, Trantsizio Digitaleko eta Barneko departamentuak– lehenbailehen ekin diezaioten Zibersegurtasunaren Nafarroako Agentzia sortzeko foru-lege proiektu bat idazteari".

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00062. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 16an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kirolaren Institu-

tuaren barrenean arreta zerbitzu anonimo eta doako bat era dezan, kirolgintzan sexu-abusu eta -jazarpenetik eta sexuagatiko jazarpenetik babes-tekoa, Nafarroako haur, nerabe eta emakume kirolzaleei zuzendua, non telefonoz, posta elektronikoz nahiz Whatsappez laguntza eta aholkularitza eskatzen ahalko baitute jasaten dituzten abusu- eta jazarpen-egoeren aurrean".

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00075. Erabakia, zeinaren bidez Pedro Sánchezen inbestiduraren prozesutik aterako den Espainiako Gobernua premiatzen baita bultzatu egin ditzan erreformen politika bat, bizikidetza eta konkordiaren sustapena, eskubideetan aurrera egitea eta herritar guztien aurrerabidea

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 16an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Pedro Sánchezen inbestiduraren prozesutik aterako den Espainiako Gobernua premiatzen baita bultzatu egin ditzan erreformen politika bat, bizikidetza eta konkordiaren sustapena, eskubideetan aurrera egitea eta herritar guztien aurrerabidea. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Pedro Sánchezen inbestiduraren prozesutik aterako den Espainiako Gobernua premiatzen du bultzatu ditzan erreformen politika bat, bizikidetza eta konkordiaren sustapena, eskubideetan aurrera egitea eta herritar guztien aurrerabidea; eta, halaber, elkarrizketaren aldeko apustu egitea bizikidetza demokratikoa bermatzeko, Estatuaren lurralde-aniztasuna eta -berezitasuna errespetatuz".

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00076. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturarteko bizikidetzarako teknikarien sarea (TECIR) indartu dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 16an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturarteko bizikidetzarako teknikarien sarea (TECIR) indartu dezan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturarteko bizikidetzarako eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko teknikarien sarea (TECIR) indartu eta handitu dezan, egiazko inklusioa eta kultura aniztasunak berezko duen aberastasunaren aprobetxamendu integrala sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta gure erkidegoko toki-entitateak premiatzen ditu harrera-tresna eta -baliabideak indartu ditzaten eta horietan sakondu dezaten, halako moduz non Nafarroako edozein herritako bizilagun berri orok senti dezan komunitate hurbilena- ren ongi etorria, ezagutu ahal ditzan dauden balia- bideak eta komunitate horretako berezko

dinamikak eta horietan egiazko berdintasunean parte hartu ahal dezan. Horretarako, ezinbestekoa da, besteak beste, Nafarroako Gobernua eta toki-entitateak lankidetzan aritzea eroldan sartzea erraztuko duten irizpide bateratuak ezartzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diskurtso arrazista eta xenofoboeri eta jaioterria, kultura, arrazializazio edo erlijioagatiko diskriminazio orori aurre egin diezaien, pertsonen eskubideen aurkako erasoa direlako eta arriskuan jartzen dutelako Nafarroan bizi diren pertsonen arteko bizikidetzak baketsua, bai eta harrerako lurralde garen aldetik dugun ondare etikoa ere.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta gure erkidegoko toki-entitateak premiatzen ditu harrera-gizartearekin lan egin dezaten estereotipoak eta aurreiritziak ekiditeko, migratzaileen kultur errealitatea ezagutaraziz”.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten baitu espainiar guztiak legearen aurrean berdina izatearekin eta konstituzionalismoaren eta gainerako ordenamendu juridiko indardunaren defentsarekin, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren eta ordezkatzan dituen goi balioen berme diren heinean

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten baitu espainiar guztiak legearen aurrean berdina izatearekin eta konstituzionalismoaren eta gaine-

rako ordenamendu juridiko indardunaren defentsarekin, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren eta ordezkatzan dituen goi balioen berme diren heinean. Mozioa 2023ko azaroaren 14ko 34. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita lehentasunez eta albait azkarren izapidetu dezan gure
herrialdean modu ilegalean sartzen diren etorkin guztien berehalako
kanporaketa**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lehentasunez eta albait azkarren izapidetu dezan gure herrialdean modu ilegalean sartzen diren etorkin guztien berehalako kanporaketa. Mozioa 2023ko azaroaren 14ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion enkante eolikoetarako
egungo araudia aldatzea, bertan prezioaren irizpideez gain irizpide
gehigarriak sartze aldera**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion enkante eolikoetarako egungo araudia aldatzea, bertan prezioaren irizpideez gain irizpide gehigarriak sartze aldera. Mozioa 2023ko azaroaren 14ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-23/ELC-00010. Nafarroako Parlamentuko ordezkariak izendatzea
Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoan**

Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak, 2023ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, honako hau erabaki zuen, besteak beste:

"1. Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoan pertsona hauek izendatzea Nafarroako Parlamentuko ordezkari:

- Pedro Rascón Macías jauna
- Irantzu Zabalza Aguirre andrea

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea".

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00003. Foruaren hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeko ponentziaren barne-funtzionamendu arauak

BARNE-FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen “Foruaren Hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeko ponentziaren barne-funtzionamendu arauak”, zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen 2023ko azaroaren 20an eginiko bilkuran. Hona testua:

Onestea Foruaren Hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeko ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak

Lehena.- Ponentziaren xedea da Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa gaurkotzea eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzea.

Horretarako, eta 13/1982 Lege Organikoaren 71.2 artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, ponentziaren amaierako txostena Nafarroako Gobernuari edo Foru Diputazioari igorriko zaio, zeinari baitagokio Lege Organikoa aldatzeko ekimena.

Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaira eramanen da argitara dadin agin dezan. Txostenarekin ados ez dauden talde parlamentarioek beren desadostasunak adierazi ahal izanen dituzte zuzenketen bidez. Zuzenketak idatziz aurkeztu beharko zaizkio Batzordeko Mahaiari, txostena argitaratu eta zazpi eguneko epean gehienez ere.

Epe hori igarota, Batzordeko Mahaiak —alde aurretik batzorde horren lehendakariak deituta— izapidera onartuko ditu zuzenketak, aurkezpen hurrenkeraren arabera ordenatuko ditu eta Legebiltzarreko lehendakariari bidaliko dizkio, hark, besterik gabe, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agindu eta deialdia egin dezan,

Batzordeak txostena eta aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu ditzan.

Eztabaida amaitu ostean txostena eta hari aurkeztutako zuzenketak bozkatuko dira, eta onesten diren zuzenketak behin betiko testuari erantsiko zaizkio.

Onetsitako txostena Parlamentuko Mahaiari jakinaraziko zaio, Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta behar denari helarazteko.

Ponentziaren amaierako txostena Legebiltzarreko Osoko Bilkurara eramanen da. Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabakiko du txostena Osoko Bilkuran eztabaidatzea, aintzat hartuta Osoko Bilkurak aztertu beharreko dokumentuaren izaera eta ezaugarriak tarteko beharrezkoak diren prozedurazko berezitasunak.

Bigarrena.- Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

– Marta Alvarez Alonso andrea (UPN talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jauna.

– Ramón Alzoriz Goñi jauna (PSN talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Inmaculada Jurío Macaya andrea.

– Arantxa Izurdiaga Osinaga andrea (EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: Adolfo Araiz Flamarique jauna.

– Pablo Azcona Molinet jauna (Geroa Bai talde parlamentarioa).

– Ordezkoa: María Roncesvalles Solana Arana andrea.

– Javier García Jiménez (PPN talde parlamentarioa).

- Ordezkoa: María Isabel García Malo andrea.
- Miguel Garrido Sola jauna (Contigo Navarra – Zurekin Nafarroa talde parlamentarioa).
- Ordezkoa: Carlos Guzmán Pérez jauna.
- Emilio Jiménez Román jauna (Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarte).
- Ordezkoa: María Teresa Nosti Izquierdo andrea.

Hirugarrena.- Proposatzea Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Unai Hualde Iglesias jauna, ponentziako lehendakari izan dadin, kon-tuan hartuta ponentzia Nafarroako Foru Komunitatearen oinarritzeko lege instituzionalari buruzkoa dela.

Idazkari-lanetan Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia jardunen da.

Laugarrena.- Ponentziak boto haztatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, talde parlamentarioen ordezkariak norbere talde parlamentarioaren edo parlamentarien elkar-tearen kide kopurua bezainbat boto edukiko dituzte.

Bosgarrena.- Ponentziak laguntza eta lankidetza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitez-en eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitez-en.

Orobat eskatu ahalko du arloko beste aditu batzuk ere etor daitez-en.

Seigarrena.- Ponentzian eginen diren agerraldiak irekiak izanen dira hedabideentzat eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu

ahalko dira, kideen gehiengoak kontrakorik erabakitzen ez badu. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, galdetu beharko zaie ea onartzen duten agerraldia egitea, eta haien mintzaldia publikoa egitea ere. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean eginen dira. Hark, bilera-eskatzailearen mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez. Parte-hartzaileraren batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako beste txanda bat ireki ahalko du; bost minutu izanen dira horiek egiteko.

Zazpigarrena.- Ponentziak lanerako plana ezarriko du, non bere lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko dituen. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko zaio.

Zortzigarrena.- Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte jardunen du. Ponentzia-eratzetik sei hilabete igarotakoan amaituta egon beharko du lan horrek, deusetan galarazi gabe onesten ahalko diren balizko luzapenak.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias